



Ekintzailtza, lanaren bilaketa
eta coworking-a bultzatzea,
**ikus-entzunezko teknologia berrien
bitartez**



Lanbide | **Formación**
Heziketa | **Profesional**
NAFARROA | NAVARRA

Ikastetxeak

Iruñeko Donapea IIP
Tafallako IIP

Koordinatzailea

Juan Carlos Pérez Sánchez

Irakasleak

Germán Ágreda
Mikel Nájera
José Luis Anaut
Cristina Sanz
Serxia Lage
Berta Marco

Helburua

- Teknologia berriak irudia eta soinua jorratzen duten zikloetan sartzea, hala nola ikuskizunak DMX kontrolaren bidez argizatzea, ziklorama bidezko set birtualekin lan egitea eta zuntz optikoaren fusioa bezalako ekipoak erabiltzea gure instalazioko nodoen artean ahalmen handiko loturak egiteko.
- Bideo curriculumak egitea eta ereduak maketak prestatzea ikasleentzat.
- Donapea IIPn zein antzeko zentroetan, kasu Tafallako IIPn, egindako jardueri buruzko bideoak egitea.
- Coworking-a sustatzea Donapea IIPren eta beste ikastetxe batzuen artean zerbitzuak trukatzearen bidez.
- Ikus-entzunezko ekitaldi edo ikuskizun mota desberdinak garatzeko behar den guztia duen gune bat izatea (kiroldegia).

Ezaugarriak

Berrikuntza teknologikoan eta ekintzailtzan oinarritzen den proiektu honen bidez, Donapea IIPk gure teknikariak kualifikatu nahi ditu, ikus-entzunezkoen alorrean teknologia berriak kudeatzeko eta erabiltzeko gai izan daitezten.

Proiektuaren ahalbideak zenbatezinak diren arren, kasu honetan enpleguaren bilaketan eta ekintzailtzan ardatzen da; izan ere, lan merkatuaren egungo egoerak ikasleak lan merkatuan sar daitezela sustatuko duten ekintza zehatzak eskatzen ditu. Zenbait dira proiektua josten duten hariak: bideo curriculumak sortzea enpresan aurkezpen txartel gisa erabiltzeko, coworking edo lankidetzan aritzea gurearen antzekoak diren beste ikastetxe batzuei (kasu Tafallako IIP) zerbitzuak eskaini ahal izateko guretzat interesekoak izan daitezkeen beste zerbitzu batzuen truke, edo baliabideak maila edo esparru desberdinetan ustiatzea (ikastetxeen artekoak, enpresak edo partikularrak). Gainera, arrazoi bat ematen digute ikastetxe eta departamentu desberdinetako irakasleen eta ikasleen multzo heterogeneo batek taldean lan egin dezan, helburu komun batzuk lortzeko xedez.

PROIEKTUAREN ERABILGARRITASUNA

Proiektu honekin, gure asmoa da teknologia berriak txertatzea lege berriarekin bat datozen zikloetako curriculumetan (LOE zikloak). Txertatze horren bidez, ikastetxean ditugun baliabideak ahalik eta gehiena optimizatu nahi ditugu. Gainera, egindako azpiegitura guztiak erraz samar lekualdatzen ahalko dira, esate baterako argiztatzeko trussak, ziklorama edo guneen arteko loturetan erabilitako materialak.



Lortutako produktuak



- Cromakey sistema, RT (denbora erreala) agertoki birtualak egiteko.
- Argiztatzeko truss sistema, DMX bidez ikuskizunak argiztatzeko eta, orobat, platoa argiztatzeko TB programetan, dokumentalak grabatzeko, agertoki birtualak egiteko, bideo curriculumak prestatzeko, etab.
- Bideo, audio eta datu seinaleak zuntz optikoaren bidez transmititzea.
- Gure ikasleekin adibide gisa egindako bideo curriculumak.
- Osasun arloko programa dokumentalak, Tafallako IIPn "Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta ematea" erdi mailako zikloa egiten duten ikasleentzako baliabide gisa.
- Telekomunikazio eta informatika sistemen proiektuaren modulua garatzea.
- Ekintzailtzaren helburuari helduko diogu, gure instalazioak esparru desberdinetan ustiatuz, hala barnekoan (departamentu artean Donapea IIPn) nola kanpokoan (antzeko ikastetxeetan edo administrazio berean, enpresetan eta norbanakoekin).
- Ikus-entzunezko zerbitzuen enpresa plan bat prestatzea, aurreko dokumentazio guztia kontuan hartuta.
- Ikastetxe eta departamentu desberdinetako irakasleen eta ikasleen arteko talde lana, proiektuaren kudeaketa, zereginen esleipena, kontrola eta jarraipena, PDCA ereduaren erabilera kalitatea kudeatzeko eta etengabeko hobekuntza lortzeko tresna gisa.
- Proiektuaren nondik norakoak etengabe hedatzea, Donapea IIPren webgunearen bidez.

